

## 7. FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Baliabideak funtsezkoak dira enpresa aurrera eramateko

Gure enpresaren balio proposamena garatzeko bidean, zenbait aktibo eskuratu ditugu, horien bidez gure bezeroei iristeko eta haiekin harremana mantentzeko. Baita diru sarreren lorpena ziurtatzeko ere.

### ➤ BALIABIDE MATERIALAK

Lehenik eta behin baliabide fisikoak edo materialak kontuan hartuz, gure produktua fabrikatzeko erabiltzen ditugun instalazioak izango dira. Gure produktua egiteko makina guztiak eta lehengai guztiak pabiloi batean gordeko ditugu (Haizearen aita duen pabiloia erabiliko dugu) eta gainera pabiloia ere gure karrituaren fabrikatzairenekin erabiliko dugu; instalazio hau herriaren periferian kokatuta egongo da. Horrez gain gure produktua egiteko makineria espezifikoa, pabiloian bertan egongo direnak, ere ditugu.

Produktuaren ekoizpenean eta bilketan parte hartzen duten baliabideak ez ezik, gure enpresak bulego bat ere izango du, herrian bertan kokatuta egongo dena, eta bertan erosleei informazioa eskaintzeaz gain, produktuaren salmenta egingo da. Gainera, zenbait furgoneta ere izango ditugu, erosleei produktua eraman ahal izateko.



### ➤ BALIABIDE INTELEKTUALAK eta GIZA BALIABIDEAK

Baliabide intelektualei eta giza baliabideei dagokionez, haiek izango ditugu:

- Ohiane eta Haizea: Bezeroekiko harremanak eskainiko dituzte, hau da, produktuaren salmenta eta laguntza pertsonala.

- Itxaso eta Paula: Administrazioaz arduratuko dira, haiek hornitzaileekin hitz egiteaz, enpresako kontuak eramateaz, eta finantzazioaz orokorrean arduratuko dira.
- Maitane: Produktuaren diseinua egiteaz eta horren ekoizpena zuzentzeaz arduratuko da.

Baliabide hauek denboraren poderioz joango dira garatzen. Gainera gure produktuak patenteak eta egile - eskubideak edukiko ditu hasiera batetik, inork gure ideia kopia ez dezan.

### ➤ FINANTZA BALIABIDEAK

Finantza baliabideak batez ere gure aurrezkiak izango dira. Hasieratik asiko garenez gure enpresarekin, ez ditugu etekinak edukiko eta beraz, dena ondo ateratzen bada gure negozioa zabaltzeko aukera edukiko dugu eta aprobetxatzeko eskudiru adina lortuko dugu. Kapital txikiarekin hasiko garenenez, ingurukoen (familia, lagunak...) laguntzaz ere baliatuko gara, eta mailegu bat eskatuko dugu hasiera batean, gure enpresa aurrera eraman ahal izateko. Dirua galduko dugun arren, geroago dirua irabazten hasiko garenez, konpentsatuta ikusiko gara behin dena ondo antolatuta dugula.

Hasiera batean Haizearen aitak duen pabiloia erabiliko dugu gure makineria eta karrituak biltzeko. Makineria erosteko, gure bulegoa alokatzeko eta hasierako materialak erosteko gobernuari eskatuko diogun diru laguntzak, gure aurrezkiak eta horiek osatzeko bankuari eskatuko diogun kreditu txikia erabiliko dugu. Geroago, gure enpresa hasten den heinean, ordura arte irabazitako diruaz baliatuta pabiloi handiago bat alokatuko dugu.

